

Sektorearen ekarpenak
Aportaciones del sector

Olatukoopen sorrera, garapena eta erronkak bosgarren olatu kooperatiboan nabigatzen

Gorka JULIO HURTADO¹, Leire UDABE AIZPURUA²

¹ (Talaios Kooperatiba)

² (Lakari Kooperatiba)

Olatukoop elkarteak

Sarrera

Artikulu akademiko bat baino, errelato bat da hau. Honi Ikerketa-ekintza deitu nahi izango dionik ere egongo da, baina honako hau praktika kolektibo askoren sintesia da. Ezin dugu esan zehaztasun gabekoa denik, baina praktikaren, lanaren eta desiren artean kokatzen da. Lan hau ez litzateke sortuko Amaia, Arianne, Beñat, Enara, Enekoitz, Mikel, Mirene, Oscar... eta beste hainbat pertsona gabe.

Ahots eta lan kolektiboen sintesia, aditu eta aritu askoren lana, eta ikertzaile zein militanteen esfortzua sintetizatzen dira ideien asanblada, edo hobe esanda, mihiztadura honetan. Kartografia bat ere bada, Euskal Herriko bosgarren olatu kooperatiboan murgiltzeko mapa; bidaia ona izan.

Sorrera

Olatukoop sarea Ekonomia Sozial Eraldatzailean (ESE) jarduten dugun kooperatibek, enpresa komunitarioek, elkarteek, eta beste hainbat erakundeek osatzen dugu. **Kideen arteko elkartasuna, jendartearen ongi-zatea, eta gure jarduera ekonomikoak ondare komunari ekarpen bat egitea** dira helburu nagusiak; horregatik enpresa proiektuak komunitate bezala ulertzen ditugu.

Euskal Herrian Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako olatu kooperatibo berri bat bultzatu behar dela ere uste dugu. Horretarako, lanaren burujabetza ardatz hartuta, **ekonomia bizitzaren zerbitzura jarri eta denontzat bizitza zein lan duina erdigunean jartzen ditugu, horretarako tresna kooperatiboa baliatuta.**

Bestetik, lanean modu aktibo eta banatuan jarduten duten **tokian tokiko eragile sozioekonomiko eta komunitarioen interkooperazioa** sustatzeko sarea ere bada eta beharbada hori da gure bereizgarri garrantzitsuenetariko bat.

Jasotze-data: 12/09/2023; Onartze-data: 18/09/2023.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © 2023 UPV/EHU



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

Barnean dauden izaera anitzak kontutan hartuta, gainera, sistema kapitalista eta haren adierazpen guztiak gainditu eta ordezkatzeko apustu garbia egiten dugu. Eta sistema kapitalistaren eraldaketaren aldeko berriazko apustu horrek dakar, kontzeptualizazioan eraldatzailea adjektiboa gehitzea.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) baitan kokatzen gara, baina ekintza oinarri hartuta, eredu ekonomiko kapitalista, heteropatriarkala eta arrazista errotik eraldatzeko bokazioa du gure elkarteak. ESSren apustu oso garrantzitsua izan da saretzea eta Merkatu Soziala eratzea. ESEk, horrez gain, interkooperazioko tresnen garapenean eta saretzearen dimentsio sakonagoe-tara joan nahi du. Horrenbestez, ekintzaren ildotik, praktikan oinarritzen den esparrua da, praktika disruptiboak sortuz, eratuz eta esperimentatuz eta horiek teorizatuz. Guzti horri gehitu behar zaio, ESE barnean «kanonikoki» sartzen ez diren, baina ekonomia eraldatzailearentzat garrantzitsuak diren ekimenak ere barnebiltzen ditugula, esaterako, ekonomia komunitarioak edo herrigintzaren praktika ekonomiko arautu gabeak.

Horrek guztiak apustu eraldatzailea berresten du, ekonomia alternatiboen unibertsoan dauden beste korrante, ekimen, praktika eta abarren aniztasunari integritasun bat emateko asmoarekin. Gainera, Ekonomia Sozialaren markoaren barnean dauden beste eragileekin elkarlanean aritzeko bideak itxi gabe, Olatukoopen, gure izaera propioan azpimarra eginez jardun nahi dugu, batez ere, eredu eta diskurtso propioa garatuta eta hainbat gairi bereziki helduta (lurraldea eta eraldaketa soziala, bizitza bizigarriak denontzat).

Era berean, ESEak gizarte mugimendu gisa duen bigarren dimentsioa ere azpimarratu nahi dugu, eraldaketa berresteko bide horretan. Horretarako, gainerako gizarte mugimendu eta eragileekin aliantzak garatu eta Euskal Herriko sozioekonomia eraldatzeko helburuak erdiesteko elkarlanean jarduten dugu Olatukoop sarean.

Orain arteko bidean, ESEaren definizioa fintzen joan gara, baina momentuz, gure ekinbidetik gertuen sentitzen ditugun praktiketarik eta hainbat bidelagun eta ikertzailearen (Oscar G. Jurado¹ eta Ivan Miró²) ekarpenetatik jasotakoa oinarri hartuta, horrela definitu dezakegu Ekonomia Sozial Eraldatzailea:

«ESE inizatiba ekonomiko alternatibo legal eta alegalen multzoa da, logika kapitalistatik at bizi eta proiektuak eraikitzeko eta behar ekonomikoak asetzeko era berriak aztertzen eta lantzen ari dena.

ESEaren apustua ekoizpen-unitate demokratiko, autonomo eta jasangarriak sortzea da, mozkinen kontrol kolektiboa sustatuko duena, kontsumo kritikoa sustatuko duena, finantza-sistema etikoak sortu eta erabi-


¹ <https://autonomiasur.org/informe-sur-2-la-economia-social-transformadora-y-andalucia/>

² <https://economicsocialcatalunya.cat/pacte-per-la-vida/>

liko dituena, bidezko banaketa-formulak bilatzen dituena, lurraldea eta eraldaketa soziala sustatu eta bizitza erdigunean jarriko dituena.»

Aldi berean, ez gara zerotik hasten, partzialki kontatutako edota ezkututako historia kooperatibo bateko bosgarren olatua garelako diogu. Eta ez da guk diogulako, Lanki ikertegiak egindako lanetan zein Miguel de la Fuente ikerlariak³ eginikoetan, hari horren azken hari-zatia garelako erakusten dute.

KOOPERATIBAGINTZAREN HISTORIA



1. irudia

Lanki ikertegia

Sortze-motibazioak

Motibazioen artean 2008ko krisia nabarmentzen da; merkatu kapitalistako lanen prekarizazioak eta langabeziak jendarteko eremu askotan eragin zuen eta testuinguru horretan lan elkartuko kooperatiben sorrera bultzatzeko beharra sortu zen. Errealitate hori aintzat hartuta, lurralde bateko pertsonen oinarrizko beharrak asetzeko eta lanaren burujabetza erdigunean jartzeko, mugimendua antolatzen hasi ziren hainbat eragile eta erakunde.

Baina beste hainbat arrazoi ere egon ziren eraldaketa martxan jartzeko; batetik, sorrerako erakunde gehienak kooperatiba txikiak ziren, izan ere,

³ Euskal Kooperatiben Mugimendua: Ziklo historiko berrirako trantsizioan? DE LA FUENTE COSGAYA, Miguel, RIUESS jardunaldietan aurkeztutako ponentzia

gisa horretako forma juridikoak sustatzeko administrazio publikoaren baitan ez zegoen nahikoa dispositibo, edo ordura arte zeudenak beste mota bateko ekintzailetasuna sustatzen ari ziren. Bestetik, Arrasateko kooperatibismoaren esperientziak ez zion olatu berri horri erantzuten, bere izaerak eta erronkak bestelakoak zirelako eta kooperatiba berriak sortzea ez zegoelako momentu horretan bere helburuen artean.

Euskal Herri osoa hartuko lukeen sarerik eza ere, bere konplexutasun administratibo hirukoitzarekin, motibazio bat izan zen. Eta noski, baita euskara erdigunean goatea eta euskaratik eta euskaraz jardutea ere.

Oinarri irekiak

Ibilbide honi ekiteko, ordea, oinarrizko printzipio edo oinarri amankomun batzuk ere beharrezkoak ziren, eta, horrenbestez, jarraian azaltzen dira gure ekinbidea gidatu duten oinarri irekiak⁴. Gainera, azpimarratu nahi dugu, oinarri hauek, Olatukoop osatzen duten partaideek, bere egiten dituztela bakoitzaren proiektuaren baitan:

1. Kooperatiba eta entitate komunitarioa osatzen duten pertsonak, auto-eraketa posible egiten duten erakundearen jabetza eta erabakitzeke ahalmen osoa dute, demokrazia ekonomikoaren eta pertsona bat bozka bat irizpideei jarraiki.
2. Kooperatiba eta entitate komunitarioa osatzen duten pertsonak, auto-kudeaketarako beharrezkoa den informazioa, ezagutzara, kudeaketa datuetara, baliabideetara eta horien erabilerara atzipen osoa eta zuzena izango dute, gardentasun irizpideei jarraiki.
3. Kooperatiba eta entitate komunitarioak, beharrezko baliabide guztiekin, elkartasun pertsonala zein komunitarioa sustatuko ditu, aberastasun banaketa orekatua eta autonomia irizpideei jarraiki.
4. Kooperatiba eta entitate komunitarioak, ondare komuna eta jasangarritasuna sustatzeko konpromisoa hartuko du, baita bere komunitatearentzako, inguruko sarearentzako eta bere ekimenak gauzatzeko dituen jendartearentzako ongizatea bilatzeko ardura ere.

Oinarri horiek orain berrikusi egingo dira, izan ere, azken urteetan beste hainbat teoria eta kolektibo sozio-ekonomikorekin izandako elkarlanaren ondorioz, kooperatibismoaren, ekonomia feministaren, ekonomia ekologikoaren eta hacker etikaren printzipioetatik sintetizatutako oinarri horiei, ikuspuntu feministaren ekarpenak gehiago arakatu eta dekolonia-

⁴ <https://olatukoop.eus/oinarri-irekiak/>

latea eta antiarrazismoaren ekarpenak txertatzeko beharra ere ikusi dugu. Beraz, eraldaketaren aldeko ekonomia eraldatzailea proposamen feministekin eta dekolonialekin hitz eginez eraiki nahi dugu. Beharrezkoa den elkarriketa eta elkarlan horrek, beraz, aintzat hartu behako ditu merkantilizatu gabeko agertokien garrantzia; horrela, bizitza guztiak zainduko dituen ekonomia alternatibo bat eraikitzen eta indartzen laguntzen duten praktika ekonomiko anitzak barnebildu nahi ditugu. Aldaketa planteatzen duten zenbait mugimendurekin lotuneak eta elkarrizketarako grina izateak, gure errealitate historikotik eraiki den kapitalismoa, eta sortzen dituen desberdintasunei aurre egiten lagundu diezaguke. Desberdintasun horiek elkarrengin heteropatriarkalean, kolonialean, arrazazistan eta kapitalistan oinarritzen direla jakitun, gure agendaren lehen lerroan izango dugun funtsezko lana izango da aipatutakoa aurrerantzean ere.

Lan-ildo estrategikoak

Hasieratik, oinarri irekiekin batera, lau lan-ildo estrategiko identifikatu genituen eta horri beste bi batu zaizkio azken 2-3 urtean:

1. Eredu propioaren eraikuntza: diskurtsoa eta praktikak.
2. Ekintzaitza Sozial Kooperatiboa.
3. Interkooperazioa eta Mutualismoa.
4. ESEaren bisibilizazioa eta memoria kooperatiboaren berreskuratzea.
- 5, Lurraldea eta Eraldaketa soziala.
6. Bizitza Bizigarriak eta Kooperatibismoa denontzat.

lido gehienetan ekinbide zehatzak martxan jarri edo lagundu ditugu. Horietako batzuen aipamen zehatzagoa egingo dugu aurrerago. Aldiz, memoria kooperatiboaren berreskuratzean nahi bezala formulatu badugu ere, pauso txiki batzuk besterik ez ditugu egin. Behar izugarria dago, baina gure praktikatik horri heltzeko aukerarik ez dugu izan oraindik.

Garapena

Hamar urte betetzera bidean doa Olatukoop eta gauza ugari jazo dira Donostian egin genuen lehen bilkura hartatik. Hasierako ideiak sorrera aurretik⁵ bazetozten ere, deialdi zabal bat egin zen 2014ean. Egun horretan, aurretik zeuden eztabaidek forma hartu eta hamarnaka proiektu

⁵ <https://talaios.coop/olatukoop-udaberri-kooperatiboa/>

bildu ginen sare digitalen bidez eginiko deialdian, Talaios kooperatiba zein Koop 57 Ehko proiektuen inguruko eragileak batuta.

Oinarri irekiak eta ildo nagusiak bertan aurkeztu bagenituen ere, lan guztia egiteke genuen oraindik. Dena den, hasiera horretan, erabakiak Asanblada Orokorretan hartuko zirela eta kanpo-harremanak sustatu eta elkarlanak bideratzeko asmoz, urtean behin Saretze-Eguna ospatuko zela erabaki genuen bertan geundenok. Urte batzuk geroago, bazkide eta kide figurak aurreikusi genituen, konpromiso-maila desberdinei atxikia eta, bozkatzeko-ahalmena ere mugatuta kideei kasuan. 2019. urtean, berriaz, profesionalizazioarentz lehen urratsa eman genuen eta koordinatzaile figura sortu genuen, bazkide eta kideon borondatezko hainbat lan-karga txikitzeko asmoz. Beste hainbat aldaketa ere egon dira, baina ondoren azaltzen dira laburtuta, azken 9 urtetako faseak:



Iturria: irudi propioa.

2. irudia

Olatukoop aurkezpena

Gaur egun

Olatukoop osatzen dugun partaideen artean aniztasun handia badago ere, proiektu kooperatibo kolektiboak gara nagusi. Horien artean gehienak lan-elkartuko kooperatibak gara. Hala ere, badaude elkarteak eta lurralde-sustraitze edo saretze handia duten pertsona bakarreko proiektuak ere.

Tertziarizazioa nabarmena da horien artean, baina arlo desberdinetako sektoreak ere biltzen dira gure sarean.

Geografikoki, Gipuzkoako lurraldean garapen nabarmena izan badugu ere, Bizkaian, Araban eta Iparraldean ere lurralde-sare berriak ehuntzen ari gara.

Elkartean egiten dugun lanaz gain, Olatukoopen barne-proiektu partekatua garatzen ditugu. Horien artean dugun **interkooperazio proiektu** garrantzitsuenetakoa **KoopFabrika** ekimena da, non era batera edo bestera 12 eragile inguruk parte hartzen dugun elkarlanean. Gainontzeko interkooperazio-proiektuak, aldiz, 3-4 partaideren kolaborazioa izan ohi dute.

Mutualismo tresnak ere garapen fasean daude. Lehen tresna **funts mankomunatuaren** eraketa izan da. Funts mankomunatu Koop57 EHren laguntzarekin batera elkarren artean diru beharrak asetzeko barne-mekanismo solidarioa da⁶.

Helburu zehatzak

Helburu zehatzagoak zerrendatzea zaila da, baina gaur egun barnera eta kanpora begirako banaketa sinple honek sintesirako balio digu:

BARNERA BEGIRA

- Elkartasuna sarekideen artean eta tresna mutualen sorrera.
- Administrazioaren aurrean ordezkaritza eta intzidentzia politiko kolektiboa.
- Aholkularitza, ezagutza kolektiboaren eta elkartrukearen printzipio-tik abiatuta.

KANPORA BEGIRA

- Ekintzailtza kooperatiboaren sustapena
- Lurralde-eraldaketa mekanismoen garapena.
- Burujabetza estrategikoen lanketa.
- Eraldaketaren bidean eragin politiko izatea.

⁶ <https://www.argia.eus/albiste/funts-mankomunatu-baten-sorrera-mutualista>

Erronkak


Asko dira hurrengo urteetan Olatukoopek izango dituen erronkak eta horretara egokitu beharko dugu gure egitura ere.

Desafio gehienak ESEaren hedapenarekin lotutakoak izango dira, horretarako beharko diren estrategiak, tresnak, aliantzak eta esku hartze ereduak lantzen jarraitu, sakondu edo berriak eraiki beharko ditugularik.

1. *Ekosistema Sozioekonomiko Eraldatzaileen garapena*

Lurraldean benetako eragina izan nahi bada, lurraldeko eragile desberdinen artean eraikitako behetik goranzko prozesu kolektiboetan ardatzu behar dira ekimenok, lurralde bakoitzeko ehun komunitario, enpresa-ehuna eta herri-erakundeak barneratuko dituzten ekimenak batuz.

Gure apustua, ESEk nagusiki gidatutako estrategia lurraldetuak garatzea da, subjektuak, guneak, bulegoak edo poloak eraikiz; edo sortzen den horretan erabakiorrak izanez. Esku-hartze modu desberdinen bidez egiten dugu lan, malgutasunez eta lurralde bakoitzak dituen beharrak eta aukerak kontutan hartuz. Hurrengo lerroetan zerrendatzen dira orain arte erabilitako esku-hartze ereduak.



Iturria: irudi propioa.

3. irudia

Olatukoop aurkezpena

SUBJETU ERALDATZAILEAK ETA TOKIKO SAREAK

Tokian toki, autonomiaz, ESEren hedapena dinamizatu eta proiektu berriei bidelaguntza eskaintzen dioten pertsona- edota proiektu-sareak dira. Subjektu horiek dira, ESEren tokiko garapenari zentzua ematen diotenak.

LURRALDE GARAPEN ERALDATZAILERAKO BULEGOAK ETA ESPAZIOAK

Erreferentziazko espazio hauetan ESEko proiektu berriek laguntza edota espazioaren erabilera (normalean mugatua) izan dezakete. Dispositibo hauek babes eskaintzeaz gain, ESEaren sustapenerako ere tresna garrantzitsuak dira eskaintzen dituzten hainbat motatako laguntzengatik. Arlo publikoarekin batera garatu daitezkeen arren, ESEaren baitako eragileek izango dute protagonismoa.

ESEREN ERREFERENTZIAZKO LURRALDE-SAREAK

Lurralde edo eremu batean ESEaren barnean martxan dauden zenbait proiektu biltzen diren gunek dira. ESEaren garapenaren kontsolidazioa eta beraien arteko interkooperazioa sustatzea dute helburu. Tokikoak izateaz gain, sektore mailako elkarketak ere izan daitezke.

HERRI KOOPERATIBAK

Tokiko garapena eta burujabetza garatzeko tresna berariazkorik bada, hori Herri Kooperatiba da. Herri kooperatiba EZ da forma juridiko bat, forma desberdinak har ditzake. Ez da plataforma bat, baina plataformaren ideiatik ere jasotzen du. Herri kooperatiba EZ da zerbitzu publikoak ordezkatzeko tresna bat, baina administrazio publikoak eskaini ditzakeen edo eskaini beharko lituzkeen hainbat zerbitzu ematera bidera daiteke.

Herri Kooperatiba Herri/Auzo/Eskualde/Zonalde batek beharrezko dituen edo desira kolektibo bat diren proiektuak sustatu eta zerbitzuak eskaintzeko herri egitura sozioekonomiko bat da. Herritar antolatuek nagusi izanik, era desberdinetan ekonomia sozialeko agenteak, herri-eragileak eta erakunde-publikoak helburu komun bat erdiesteko biltzen dira bertan, helburu hori gauzatzeko, eredu kooperatiboa baliatuz.

Helburua proiektu horren bidez Herri Kooperatibara atxikimendua lortzea da. Jendea proiektu hori sortzeko biltzen denean, bazkidetza proiektu horri bakarrik lotuta egon beharrean, proiektu nagusira lotuko da. Bazkideak kooperatibako bazkide izango dira eta informazioa eta har-

tzeko aukera izango dute. Horretaz gain, sortuko diren hainbat zerbitzuren erabiltzaile izan ahalko dira; ez bakarrik zerbitzu batena. Horrek egin-dako lana berrerabiltzeko aukera ematen du, etorkizunean komunitateak beharrezko dituen beste proiektuak martxan jartzea erraztuz. Ekintzaitzarako erraztasunak ere ematen ditu, hasieran proiektuek kooperatiba horren forma juridikoa baliatu dezaketelako eta hortik hazi edo garatu, proiektu autonomo bilakatzeraino.

Tokiko garapen eraldatzaileko esku-hartze mota honen adibide praktikoa jada martxan dugu (Bakaikuarrok Koop (Sakana-Nafarroa), Herri Bizigune (Zizurkil-Gipuzkoa). Bide horretan argitalpen bat ere ateratu dugu Koopfabrika proiektuaren markoan, GEZKIrekin elkarlanean «Herri Kooperatibak helduleku teorikoak eta bideragarritasun juridikoa Euskal Herrian»⁷.

2. Ekintzaitza sozial kooperatiboa sustatzeko dispositiboaren garapena eta hedapena

Olatukoopen hasieratik ekintzaitza sozial kooperatiboa sustatzea izan dugu helburu. Horretarako, gure dispositibo eta tresna propioak garatzeko erabakia hartu genuen. Dispositibo horiek garapen desberdina dute Olatukoopen baitan, baina lan-ildo indartsuenetarikoa dira gaur egun; haue-tan sakontzea izango da erronka, beraz.

KOOPFABRIKAREN GARAPENA

KoopFabrika ekonomia soziala eta ekintzaitza kooperatiboa sustatzeko programa bat da, Gipuzkoan sortutako ekimenetara zuzendua, baina hortik kanpo ere eragiteko helburua duena. Bere lehen edizioa 2016-2017 ikasturtean izan zen Lanki Institutuak (MU), Beterri-Buruntzako Udalek Olatukoopeek eta Gezki Institutuak (EHU) bultzatuta. Programak prestakuntza, bidelaguntza, ikerketa eta saregintza barne biltzen ditu. Horretarako urtero formazio saioak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzeaz gain, ekintza kooperatiboaren arteko interkooperazioa sustatu eta ezagutzaren sistematizazioan lan egiten da.


Hainbat urtetan, konkurrentzian Gipuzkoako dirulaguntza batera aurkeztu ostean eta programaren arrakasta ikusirik, erronka orain egitasmoaren egonkortzean eta hedapenean dago. Programaren urtekako dinamikatik ha-

⁷ <https://meta.koopfabrika.eus/s/DBAimXeierEsHjK>

rago, gure helburuak hainbat urterako iraunkortasun ekonomikoa ziurtatzea eta politika publiko bat bezala bilakatzea dira.

Bestalde, ekintzailetza-ereduari dagokionez, ESEaren printzipoekin bat egiten ari ginen edo ez aztertzeko ikerketa lan bat garatu genuen Koopfabrikaren markoan, eta printzipio horiek adierazle sistema⁸ batean jaso dira. Horren helburua, gure oinarrietatik harago joateaz gain, sortzen ari garen eta etorkizunean sortuko diren ekimenak printzipio horiekiko nola le-rokatzen ari diren kontutan hartzea izango da.

Irudi batean, hauek izan dira, 2022-2023 urtea kontutan hartu gabe, sei ediziotan izandako emaitzak.



Iturria: irudi propioa.

4. irudia

Koopfabrika marrazkia

⁸ <https://meta.koopfabrika.eus/s/9NRaYPzYqGCqFdW>

KOOPFABRIKA HEGOALDETIK

Koopfabrikatik sortutako ekimena da, Enarak Kooperatibak HU-HEZI- Lanki institutuarekin eta Olatukoopekin elkarlanean sortua. Helburua tresna kooperatiboa eta ekonomia sozial eraldatzailea pertsona migratuei hurbiltzea da, beren lana antolatzeko eta bizitza-proiektuak hobetzeko.

Kolektibotasunetik abiatuta, elkarrekiko laguntza eta asistentzialismoe-tatik urrun, sare bat eraiki nahi da, egungo bidezko ez den sistema honetan (ekonomia kapitalista, matxista, arrazista, kolonialista) pertsona migratuek dituzten behar eta zailtasunei aurre egiteko, eta ekonomia sozial eraldatzailearen bidez, bizitza duintzeko alternatibak bilatzeko. Prestakuntza, bidela-guntza, interkooperazioa eta ikerketa, eta ekintza kooperatibo eta kolekti-boen sistematizazioa ditu ardatz egitasmo honek ere.

EKINTZAILETZA SUSTATZEKO KOOPERATIBAK

Ekintzaile-kooperatibak (Cooperativas de empendizaje gazteleraz) eta Ekintzaitza sustatzeko kooperatibak (Cooperativas para el Fomento del emprendizaje gazteleraz) ekintzaitza kooperatiboa sustatzeko estrategia kooperatiboak dira. Batzuk eremu publikotik sustatutakoak eta besteak Ekonomia Sozialeko eragileen nagusitasunarekin sortuak.

Oraindik gehiegi sakondu ez bada ere, Olatukoopen era honetako koo-peratibak sustatzeko erronka izango dugu datozen urteetan, ESEko balore eta praktikekin bat datozen heinean.

3. *Burujabetza estrategikoen garapena, tokiko garapen eraldatzaile baterako aliantzak*

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen praktikak oinarri hartuta, beste ba-tzuekin batera tokiko garapenaren bestelako eredu bat ereitea eta agendan jartzea dugu helburu.

Tokiko garapen eraldatzailearen xedea lurralde burujabeak eta biziga-riak garatzea da. Eta Gezki eta Lanki ikertegiekin batera egindako «Eko-nomia Sozial Eraldatzailea eta Tokiko Garapen Eraldatzailea sustatzeko gida»⁹ azaltzen den moduan, tokiko garapen eraldatzailearen bitartez, komunitatearen bizitzeko beharrak eta desirak asetzera bideratuko dituen praktika sozioekonomikoak garatu eta horien arteko lankidetzeta eta in-terkooperazio harremanak bideratzea da helburua. Bizitzaren burujabe-

⁹ <https://meta.koopfabrika.eus/s/p4ZgNFyjBETeZgH>

tzarako edo bizitzaren bizigarritasunerako lehentasunezkoak diren burujabetza estrategikoen (etxebizitza, elikadura, energia, zaintza, kultura, telekomunikazioak eta teknologia, etab.) jarduerak lurralde batean modu autoeratuan eta elkarlanean garatzeaz dihardugu.

Eraldaketa hori erdiesteko, ordea, udalekin eta udalgintzaren markoan elkarlanean aritzea esparru eraginkorrenetako bat da, batetik, erakunde horiek baitira herritarrengandik gertuen daudenak, eta, bestetik, udal erakundeak baitira tokiko beharrei erantzun behar dietenak. Ondorioz, ESEren balioak eta praktikak, tokiko garapen ekonomikoaren estrategien erdigunean jarri eta elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioen bitartez, bizitzarako lehentasunezkoak diren jarduera sozioekonomikoak garatzea izan behar du ortzimuga. Elkarlan horretan, publikoak bermatzen du unibertsaltasuna, jendarte guztiarentzako baliagarria den ereduia izan dadila, pertsona guztiak izan dezatela irisgarritasun bera; kooperatiboak bermatzen du jarduera ekonomikoa den heinean, kooperatibismoaren balioak izatea kudeaketa-ereduaren oinarri eta berme; eta komunitarioak adierazten du txertatuta dagoen gizarte edo komunitateari ahotsa eta partaidetza ematen zaizkiola. Burujabetzarako funtsezkoak diren hiru elementuak biltzen ditu elkarlan honek: jabetza, proiektua eta erabakietan parte-hartzea.

Publikotasunaren beraren hedapena ere bilatzen du tokiko garapenerako eredu honek eta marko legislatiboak baldintzatzen dituen esparruan, ESE ereduak txertatzeko aukerak publikotasuna ulertzeko beste era batzuk bilatzeko helburua dugu. Horretarako, ezinbestekoa izango da ere langile mugimenduarekin eta herri-mugimenduarekin harremanak estutzea; beziki eragile sozioekonomikoekin (sindikatuak batez ere). Interkooperazio eredu berri horrek kooperatibismo komunitarioa eta herrigintza eraldatzaileria uztartu nahi ditu bizitzarako ekonomia baten bidean.

Eremu arriskutsua izan daitekeela jakitun, pribatutasuna eta publikotasunaren arteko eremu horretan zer eta nola jardun daitekeen ikuspegi desberdinak baitaude. Asmatu beharko dugu, Jule Goikoetxeak esango lukeen bezala¹⁰, instituzio publiko demokratizatzaile edo ahalduntzaile berriak martxan jartzen.

4. *Plataforma Kooperatibismoaren lurraldetzea*

Plataforma-Kapitalismoa eta bere trojako zaldia den Ekonomia Kolaboratibo Korporatiboaren (AirBnB, Glovo, Uber) aurrean, erantzun koo-

¹⁰ Goikoetxea Mentxaka, Jule: Demokraziaren Pribatizazioa: Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak, Donostia : Elkar, 2017, 292 or., ISBN: 978-84-9027-774-4

peratibo bat ematea garrantzitsua da eta hainbatek Plataforma-Kooperatibismoaren bidez erantzun nahi diogu oldarraldi honi.

Plataforma-Kooperatibismoaren¹¹ printzipioak hauek lirateke: plataformaren jabetza kolektiboa; ordainketa duina eta errenta segurtasuna; datuen gardentasun eta portabilitatea; sortutako balioaren aintzatespen eta aitortza; lanean erabaki kolektiboak hartzeko egitura eta, beraz, bermea; lege-marko babeslea; langileen babes transferigarria eta prestazio sozialen estaldura; rating sistemetan jokabide arbitrarioen kontrako babesia; lantokiko gehiegizko zelatatzearen ukapena eta, azkenik, langileen deskonektatzeko eskubidea. Gainera, Trebor Scholzek nabarmentzen du beharrezkoak direla printzipio hauen araberako plataformak ez ezik, hauen inguruko ekosistema kooperatiboak sortzea ere.

Hori horrela, eztabaida hauek gurera iristen joan diren heinean, Euskal Herriko kooperatibismoaren hainbat oinarri kontutan hartu gabe egin eta egiten dira hausnarketa horiek maiz, Plataforma-Kooperatibismoa urardotutako kooperatibismo batera bideratzeko arriskuarekin. Horregatik prozesu horiek lurraldetu eta hemengo errealitate eta praktiketara egokitzeko erronkari erantzun nahi diogu. Alde batetik, ereduaren eztabaidari parametro propioak azpimarratuz eta mugak jarritz; maximalistak izan gabe Plataforma-Kooperatibismo berri bat etorriko bada zerrendako faktore bakoitzean behintzat baldintza horietako bat bete beharko litzateke. Eztabaida bakoitzak ertz asko dituen arren, hemen eskematikoki aipatzen ditugu hari bakoitzari dagozkionak:

- Interkooperazioa edo/eta elkarrekiko laguntza.
- Gardentasuna edo/eta erreplikabilitatea.
- Deszentralizazioa edo/eta elkarreragingarritasuna.
- Herritar edo/eta tokiko komunitateari egindako ekarpena.
- Eragile guztien lan kooperatiboa edo/eta gobernantza parte-hartzailea.

Aldi berean, Euskal Herrian Plataforma-Kooperatibismo bezala uler daitezken proiektuak lagundu nahi ditugu. Adibidez Eraman kooperatibak¹² gidatuta EHko ziklogistikako kooperatibek, Coopcycle¹³ software mankomunatua baliatuz sortu duten CoopCycle EHko federazioarekin elkarlanean ari gara.

¹¹ https://rosalux.nyc/wp-content/uploads/2020/11/RLS-NYC_platformcoop.pdf

¹² <https://eraman.coop/>

¹³ <https://coopcycle.org>

5. *Enpresa berreskurapena eta transmisio kooperatiboa*

Bizi dugun krisi egoera jarraituaren ondorioz, enpresetan lanaren, eza-gutzaren eta jabetzaren transmisio beharrak handitu dira, bereziki landa eremuan lehen sektoreko eta zerbitzuetako proiektuetan, eta gure herri eta auzoak bizigarri egiten dituen merkataritza txikian.

Asko dira errelebo faltagatik galdu edo galbidean dauden enpresak, nahiz eta bideragarriak izan. Prozesu horiek, gehienetan, proiektuko langileen ekimenaren baitan geratzen dira eta horrelakoetan behar den babes eta tresnak ez dituzte eskura izaten.

Baina kolektibizazio prozesuak nola egiteaz gain, nork egin behar dituen ere galdera garrantzitsua da. Enpresa horiek behar komunitarioak aseko badituzte, prozesuen subjektuak zabala izan beharko du, langileek, herritarrek, lurraldeko erakunde publiko, sindikatu eta kooperatibek osatuak. Eta noski, ezagutza eta harreman sareak ez dira egun batetik bestera sortzen.

Bide berean, enpresa handiagoen berreskuratze behar berriak etorriko dira laster, eta kooperatibismoaren garapena kontraziklikoa denez, pres-tatu beharko dugu egoerari tresna kolektiboekin erantzuteko, komunitateak sustengatutako proiektuen bitartez, kooperatibismoaren eta sindikalismoaren aliantza berriekin.

Horretarako, formazio, finantziazio, bidelaguntza eta babes publiko-komunitariorako tresna sendoak beharko ditugu. Beñat Irasuegiren hitzetan¹⁴, ildoak lantzen ari gara kooperatibismo eraldatzailetik, baina sare trinkoagoak beharko ditugu gure lurraldeetatik erronkari erantzuteko. Horregatik prozesu hauek era kooperatiboan kudeatzeko erronkari ere eutsi nahi diogu etorkizunean.

6. *ESEaren saretzea*

Orain arte eremu publikoarekin eta herri-eragileekin sortu beharreko aliantzaz aritu gara. Azpimarra jarri dugu bereziki gertuko erakundeetan (udalgintzan) eta arlo sozioekonomikoko eragileetan (sindikatuak), baina bada beste saretze baten beharra eta hori ekonomia sozialaren arteko eragileen artekoa da.

Badira Euskal Herrian ekonomia sozialeko agente, sare eta ekosistema desberdinak eta beste batzuk ere sortzen ari dira, adibidez Iparraldean.

¹⁴ <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2833/transmisio-eta-berreskurapen-kooperati-boaren-beharraz>

Horien guztien artean elkarlana eta batera aritzeko estrategiak garatzea ezinbestekoa izango da, maila lokalean eta globalean hurrengo urteetan. Bisio eta estrategia desberdinak baditugu ere, bakoitzak bere ahalmenen arabera, elkarlanerako eta partaidetzarako aukera emango diguten egitura eta prozesu partekatuak martxan jartzea ezinbestekoa da.

Helburu hori lortu asmoz, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren RIPESS-en definizioa¹⁵ aski onartua da maila internazionalen, eta uste dugu horrek eragile asko batzeko aukera izango duela teorian, baina era berean, teoria hori guztia praktikan jartzea izango dugu erronka.

Bestetik, kooperatiba federazioak eta konfederazioak indartzea ere garrantzitsua izango da etorkizunean. Gu bertan izango gara, baldin eta erabilera instrumentaletatik harago, elkarlanerako, interkooperaziorako eta ekintzarako tresnak bihurtuko badira.

¹⁵ <https://www.ripess.org/que-es-la-ess/es-economia-social-solidaria/?lang=es>